

ZUZENDARIAK HAUTATZEKO MEREZIMENDU-LEHIKETAREN DEIALDIA

1.artikulua: **Deialdia**

2021eko ekainaren 30ean ikastetxeko zuzendari-postua hutsik geratzen diren ikastetxeetan betetzeko. Data horretan zuzendaritza-taldeen agintaldia amaitzen denetan beteko da.

Deialdi honek ikastetxe publiko horietako zuzendariak aukeratzeko prozesua bideratzen du.

Zuzendariak hautatzeko merezimendu-lehiaketaren deialdia da.

3.artikulua: **Hautagaien betebeharrak merezimendu-lehiaketan parte hartzeko**

1)

a) Gutxienez, bost urteko antzintasuna funtzio publikoan funtzionario gisa.

b) Epe horretan, zuzenean irakasten egotea

c) Ez egotea zuzendari gisa izendatuta aurreikusten den datatik harago, salbu aurreko prozesuan ikastetxean zuzendaria hautatu ez denean eta zuzendari izendatu bada edo ikastetxe sortu berrietako zuzendaria izendatu bada.

d) Administrazioek emandako prestakuntza-ikastaroa gainditu izana egiaztatzen duen ziurtagiria edukitzea. Ziurtagiri hori eman zenetik zortzi urte igaro badira, zuzendaritza-gaitasunak eguneratzeko ikastaro bat gainditu beharko du zuzendari izendatzeko hautaketa-prozesuan parte hartu ahal izateko.

6. Los cursos de formación superados tendrán una validez indefinida. (Real Decreto 894/2014, de 17 de octubre)

No obstante, una vez transcurrido el plazo de ocho años desde la expedición de la certificación correspondiente, deberá llevarse a cabo la actualización de los contenidos sobre los que se ejercen las competencias necesarias para el ejercicio de la función pública docente, mediante la superación de los cursos de actualización de contenidos correspondientes.

Dicha superación de un curso de actualización de contenidos en ningún caso será necesaria para la renovación del nombramiento de directores, pero podrá ser tenida en cuenta como mérito en los procedimientos de selección de directores.

-Ikastetxe publikoetako zuzendarien gainkuntzak eta egiaztatzeak, 2014ko urtarrilaren 3a baino lehen eman badira, ziurtagiri horren parekoak dira; dena dela zuzendaritza-gaitasunak eguneratzeko ikastaro bat gainditu ondoren parte hartu ahal izango dute hautaketa-prozesu honetan.

- 2014tik 2019ra nahiz eta bost urteetan zuzendari-eginkizunak bete, zuzendari-gaitasunak eguneratzeko ikastaro bat gainditu beharko dute hautaketa-prozesu honetan parte hartu ahal izateko.

e) Zuzendari-proiektua aurkeztea (2009ko Dekretuaren eranskina + gobernu-organoren pertsonen izenak)

2) Haur Hezkuntzako ikastetxe espezifiketan, Lehen Hezkuntzako osatu gabeetan, zortzi unitate baino gutxiagoko Bigarren Hezkuntzakoetan, zortzi irakasle baino gutxiago dituzten helduentzako ikastetxeetan, ...bete behar dituzten baldintzak:

a) Gutxienez, urtebeteko antzintasuna funtzio publikoan funtzionario gisa.

b) Epe horretan, zuzenean irakasten egotea

c) Ez egotea zuzendari gisa izendatuta aurreikusten den datatik harago, salbu aurreko prozesuan ikastetxean zuzendaria hautatu ez denean eta zuzendari izendatu bada edo Ikastetxe sortu berrietako zuzendaria izendatu bada.

d) Zuzendari-proiektua aurkeztea (2009ko Dekretuaren eranskina + gobernu-organoaren pertsonen izenak)

3)

Lan-kontratadun irakasleak ikastetxeko irakasle guztien ehuneko berrogeita hamar, gutxienez, diren ikastetxeetan, lan-kontratadun edozein irakle finkok aurkeztu ahal izango du bere hautagaitza eskatutako ikastetxean destinoa badu.

4)

Prestakuntza-ikastaroaren egiaztapena atzeratu ahal izango dute 2021eko ekainaren 25era arte.

4. artikulua: **Hautaketa-prozesuaren garapena**

I. eranskinean, egutegiaren eta prozeduraren arabera gauzatuko da.

5. artikulua: **Eskabideak**

II. eranskineko ereduari jarraituko zaio eskabideak aurkezteko. Merituak: epea bukatzen den egunera arte.

6. artikulua: **Egiaztatzeko dokumentazioa**

III. eranskinean zehaztuta daude zein ageri aurkeztu behar diren.

7. artikulua: **Deialdian sartutako ikastetxeak**

IV. eranskinean ageri da zein ikastetxeetan konbokatu den prozesua.

I. ERANSKINA

HAUTAKETA-PROZESURAKO EGUTEGIA ETA PROZEDURA

a) Eskabideak aurkeztea:

- 2021eko urtarrilaren 18a eta 29a bitartean, biak barne.
- Idatzizko eskabidea egin, eta lurralde-ordezkaritari igorri.
- Agindu honen II. eranskineko ereduari jarraituz (alegatutako meritu guztiak).
- Hautagai bakoitzak bere burua, gehienez, hiru ikastetxetako zuzendari izateko aurkez dezake.
- Ikastetxe bakoitzeko eskabide bana aurkeztu beharko du.
- III eranskina
- Zuzendari proiektua (Dekretuko Eranskinean agertzen diren alderdiak –abenduaren 5eko 262/2017 Dekretuaren arabera–, bai eta ikastetxeko pertsona bakarreko gobernu-organoak osatuko dituzten proposaturiko pertsonak ere).
 - DIN A4ko 15 orrialde izango ditu, alde bakarretik idatzita, «Arial» edo «Times New Roman» letra-tipoa eta 11 puntuko letra-tamaina –edo handiagoa– erabiliz, eta konprimatu gabe. Lerroarteko tarteak 1,5koa edo handiagoa izango da. Ez dira orrialde gisa zenbatuko azala, aurkibidea eta arau-erreferentziei eta bibliografiari buruzko orrialdeak.

d) Eskabideak onartzeko edo ezesteko behin-behineko ebazpenak.

- Lurralde-ordezkariek eskabideak onartzeko edo ezesteko behin-behineko erabakia hartuko du.
- Aipatutako erabakia hartzeko epea 2021eko otsailaren 22an amaituko da.
- Onartzen ez diren pertsonak kanpoan uzteko arrazoiak zehaztuko dira.
- Onartutako pertsonen kasuan, ikasturte horretan zuzen-darigaiak destinoa ikastetxe horretan duen edo ez.
- Lurralde-ordezkariek auzian dauden ikastetxeetako zuzendariei ebazpenen berri emango diete, ikastetxeko iragarki-taulan jakitera eman dezaten.

e) Aurreko Behin-behineko ebazpenak argitaratzea

- Lurralde-ordezkaritzako iragarki-taulan eta ikastetxeko iragarki-taulan argitaratuko dira.
- Epea 2021eko otsailaren 24an amaituko da
- Erreklamazioa: epea 2021eko martxoaren 5ean amaituko da.

f) Behin betiko ebazpenak

- Lurralde buruak: epea 2021eko martxoaren 10ean amaituko da

g) Behin betiko ebazpenak argitaratzea

- Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzako iragarki-taulan eta ikastetxeko iragarki-taulan argitaratuko dira.

- epea 2021eko martxoaren 12an amaituko da

- Hezkuntza-ikuskaritza, 2021eko martxoaren 15etik aurrera, derrigorrezko txostenak egiten hasiko da, hautagaitza bat aurkeztu edo onartu ez den ikastetxe horietan zuzendaria izendatzeko. Hezkuntza-ikuskaritzak 2021eko ekainaren 9a baino lehen bukatu beharko ditu txosten horiek.

h) Hautagaien merituei buruzko informazioa eskatzea

- Ikastetxe batean hautagai bakar baten eskaera soilik onartu bada, ez da beharrezkoa izango hautagaiak bigarren faserako aurkeztutako merezimenduak balioestea.

- Hautagai bat baino gehiago onartu dituzten ikastetxeetan, 2021eko martxoaren 15a eta 18a bitartean, biak barne, kasuan kasuko gaiaren arabera, Hezkuntzako lurralde-ordezkariek Hezkuntza Saileko lurralde-zerbitzuei eskatuko diete egiaztatzeko ea hautagaiak lehiaketaren lehen faserako alegatzen dituen merituek zuzen dauden, gero datu horiek dagokion aukeraketa-batzordeari emateko.

j) Aukeraketa-batzordea eratzea.

- Gutxienez hautagai bat onartu den ikastetxeetan aukeraketa-batzordea eratuko da. Horretarako:

Irakasleen artean:

- 2021eko martxoaren 15a eta 17a bitartean, auzian dauden ikastetxe guztietan ezohiko klaustroa egingo da.
- Aukeraketa-batzordean klaustro horren ordezkaria izango den pertsona hautatuko da
- Zuzendariaren ordezkaria iragarriko du eta bera izango da burua.
- Bozketa sekretua egingo da.
- Botoa emateko eskubidea duen pertsona bakoitzak pertsona bakar bati emango dio botoa.
- Baliozko boto-kopururik handiena lortzen duen hautagaia izango da klaustroaren ordezkaria.
- Klaustroaren ordezkaria izango den pertsona hautatu ondoren, haren ordezkoen zerrenda egingo da. Botoren bat jaso duten guztiek osatuko dute ordezkoen zerrenda. Boto gehien lortu dituen egongo da lehenengoa, eta azkena, berriz, boto gutxien jaso dituen.

Irakasle ez diren baina ikastetxeko ordezkari-organoren kide badirenen batzarra egingo da

- 2021eko martxoaren 15a eta 17a bitartean, auzian dauden ikastetxe guztietan ezohiko klaustroa egingo da.
- Bozketa sekretua egingo da, eta irakasleak ez diren baina ikastetxeko ordezkari-organoren kide badirenek pertsona bana bozkatu ahal izango dute.
- Baliozko boto-kopururik handiena lortzen duen hautagaia izango da ordezkari-organoren ordezkaria.
- Pertsona hautatu ondoren, haren ordezkoen zerrenda egingo da. Botoren bat jaso duten guztiek osatuko dute ordezkoen zerrenda. Boto gehien lortu dituen egongo da lehenengoa, eta azkena, berriz, boto gutxien jaso dituen.

Ikastetxeko zuzendariak 2021eko martxoaren 18an lurralde-ordezkaritari igorriko dio aipatutako parte hartzeko organo bakoitzaren batzarretako aktaren kopia.

4. Ikastetxe bakoitzari dagokion lurraldeko ikuskari buruak hezkuntza-ikuskariaren izena proposatuko dio dagokion Hezkuntzako lurralde-ordezkaritari, batzordeko buru izendatu dezan. Aipatutako proposamenak egiteko epea 2021eko martxoaren 18an amaituko da.

5. Lurralde historikoetan osatu beharko diren – Lurralde historikoetan osatu beharko diren aukeraketa-batzordeetako kide guztiak Hezkuntzako lurralde-ordezkariek izendatuko dituzte. Izendapen horiek egiteko epea 2021eko martxoaren 24an amaituko da.. Izendapen horiek egiteko epea 2021eko martxoaren 24an amaituko da.

6.– Hezkuntzako lurralde-ordezkariek hautagaitza bat baino gehiago onartu duten ikastetxeetako batzorde bakoitzeko lehendakartzari emango dizkiote onartutako hautagaien lehiaketaren bigarren faseko merezimenduak balioesteari buruzko datuak. Horrez gain, onartutako hautagai bakoitzak aurkeztu duen zuzendaritza-proiektuari buruzko dokumentazioa emango diote. Ikastetxeek hautagaitza bakarra badute, hautagai bakarrak aurkeztutako zuzendaritza-proiektuari buruzko dokumentazioa baino ez da aurkeztu beharko. Aipatutako datuak eta dokumentazioa emateko epea 2021eko martxoaren 26an amaituko da

k) Zuzendaritza-proiektua balioestea.

1)

-2021eko martxoaren 12a eta apirilaren 23a bitartean, aukeraketa-batzordeek hautagaien zuzendaritza-proiektua balioetsiko dute.

-2020-2021 ikasturtean behin-behineko edo behin betiko lanpostua ikastetxean izan duten eta karrerako funtzionario diren hautagaienak, Dekretuaren aurreikusten diren irizpideak hartu beharko dituzte oinarri.

-Lehen fase horretan, hautagaiak 35 puntu lortu behar dituzte, gutxienez. Gutxienerako puntuazio hori lortzen ez duten izangaiak hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira.

- Ikastetxean behin-behineko edo behin betiko destinoa duten eta karrerako funtzionarioak diren hautagairik ez badago, edota pertsona horietako batek berak ere ez badu gutxienerako puntu-kopurua lortu, aukeraketa-batzordeak destinoa beste ikastetxe batzuetan duten eta karrerako funtzionario diren hautagaien proiektuak balioetsiko ditu.

-Azkenik, hautagaien artean funtzionarioak ez badago edo pertsona horietako inork ez badu lortu eskatzen den gutxienerako puntu-kopurua, aukeraketa-batzordeak ikastetxean destinoa duten lan-itunpeko irakasleen hautagaitzen proiektuak balioetsiko ditu.

2.) Aukeraketa-batzordeak hautagaiak elkarrizketatu ahal izango ditu –gutxienez 48 ordu aurretik hitzordua jarrita– zuzendaritza-proiektuan jasotako informazioa osatzeko, eta proiektua ikastetxerako eta eskatutako posturako egokia den aztertzeko.

3.) Aukeraketa-batzordeko kide bakoitzak balioztatuko du zuzendaritza-proiektua, eta 0 eta 70 arteko puntuazioa emango. Pertsona bakoitzak emandako puntuazioak zenbaki osoa izan beharko du. Emandako kalifikazioen batez besteko aritmetikoa izango da zuzendaritza-proiektuagatik lehiakide bakoitzak lortuko duen puntuaketa, eta bi zenbaki hamartarrekin kalkulatu da. Emandako kalifikazioetan 20 puntu edo gehiagoko aldea dagoenean, automatikoki kenduko dira gehieneko eta gutxienerako kalifikazioa, eta gainerako kalifikazioen artean kalkulatu da batez besteko puntuaketa.

l) Bigarren faseko merezimenduen balorazioa, hautagai bat baino gehiago duten ikastetxeetan.

Zuzendaritza-proiektuak balioesten bukatu ondoren, hautagai bat baino gehiago duten ikastetxeetan, aukeraketa-batzordeak, Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzak batzordeari emandako informazioa kontuan izanik, lehenengo fasean eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu duten hautagai guztien bigarren faseko merezimenduak balioetsiko ditu. Merezimendu horiek balioesteko epea 2021eko apirilaren 16an amaituko da.

m) Hautagai bakoitzak eskuratutako puntuazioari buruzko ebazpena.

1.-2021eko apirilaren 26an, aukeraketa-batzordeek ikastetxeko iragarki-taulan eta Hezkuntzako dagokion lurralde-ordezkaritzako iragarki-taulan argitaratuko dute hautagaiek fase bakoitzean eta baremoko alderdi baloragarri bakoitzean eskuratutako puntuazioak jasoko dituen behin-behineko ebazpena.

2.– Behin-behineko ebazpen horren kontra, interesdunek dagokion erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute dagokion hautapen-batzordearen aurrean, 2021eko apirilaren 27a eta 30a bitartean, biak barne.

3.– Behin betiko ebazpena. ikastetxeko iragarki-taulan eta Hezkuntzako dagokion lurralde-ordezkaritzako iragarki-taulan jakitera emateko epea 2021eko maiatzaren 14an amaituko da.

n) Zuzendari-kargurako nor hautatu behar den proposatzea

2021eko maiatzaren 14an bertan, batzordeko lehendakariak jendaurrean jarriko du akta hori ikastetxeko iragarki-taulan, eta dagokion lurralde historikoko Hezkuntzako lurralde-ordezkaritari igorriko dio.

ñ) Hezkuntzako lurralde-ordezkarien ebazpenak

Ebazpen horiek emateko eta jakinarazteko epea 2021eko maiatzaren 26an amaituko da.

o) Zuzendariak izendatzea

-Pertsona horiek lau urtez egongo dira karguan, 2021eko uztailaren 1etik aurrera

-Hautagaitzarik aurkeztu ez den ikastetxeetan edo aukeraketa-batzordeak inor aukeratu ez duen kasuetan, dagokion lurralde historikoko hezkuntzako lurralde-ordezkariek, salbuespen modura, karrerako funtzionario den irakasle bat izendatuko du zuzendari, gehienez ere lau urterako, 2021eko uztailaren 1etik aurrera. Hezkuntzako Ikuskaritzak aurretiko txosten bat argitaratu beharko du horretarako.

- Apartatu honetan jasotako kasu guztietan, ikastetxean lan egiten duten irakasleen ehuneko berrogeita hamar gutxienez lan-itunpeko irakasle badira lurralde-ordezkariek zuzendari izendatu ahal izango du Hezkuntza Sailaren mende dauden lan-itunpeko irakasle finkoetako bat.

p) Ikastetxeetako pertsona bakarreko gainerako gobernu-organoen izendapena

ikastetxeko zuzendari izendatu duten edo izendatuko duten pertsonak dagokion lurralde historikoko hezkuntza-ordezkaritari ikastetxeko pertsona bakarreko gainerako gobernu-organok izendatzeko proposatuko dio. Proposatu aurretik, zuzendariak bertako klaustroari eta ordezkaritza-organorenari jakinaraziko dio. Izendapenaren datan lanpostua ikastetxean bertan duten irakasleak izan beharko dira.

Lurralde ordezkariak eskabideak onartzeko edo ezesteko behin-behineko ebazpena	epea 2021eko otsailaren 22rako
Aurreko behin-behineko ebazpenak argitaratzea	2021eko otsailaren 24an amaituko da epea. Erreklamazio epea 2021eko martxoaren 5ean amaituko da.
Behin betiko ebazpenak	Epea 2021eko martxoaren 10ean amaituko da
Behin betiko ebazpenak argitaratzea	epea 2021eko martxoaren 12an amaituko da. Hautagaitza bat aurkeztu edo onartu ez den ikastetxeetan Hezkuntza-ikuskaritzak 2021eko ekainaren 9a baino lehen bukatu beharko ditu hautatzeko txostenak.
Lurralde ordezkariak Hautagaien merituei buruzko informazioa eskatzea	2021eko martxoaren 15a eta 18a bitartean
Aukeraketa-batzordea eratzea.	2021eko martxoaren 15a eta 17a bitartean, auzian dauden ikastetxe guztietan ezohiko klaustroa egingo da. Ikastetxeko zuzendariak 2021eko martxoaren 18an lurralde-ordezkariari igorriko dio organo bakoitzaren batzarretako aktaren kopia.
Lurraldeko ikuskari buruak hezkuntza-ikuskararen izena proposatuko dio dagokion Hezkuntzako lurralde-ordezkariari, batzordeko buru izendatu dezan	epea 2021eko martxoaren 18an amaituko da.
Lurralde historikoetan osatu beharko diren aukeraketa-batzordeetako kide guztiak Hezkuntzako lurralde-ordezkariak izendatuko dituzte	epea 2021eko martxoaren 24an amaituko da.
Lurralde-ordezkariak datuak eta dokumentazioa emateko epea	Aipatutako datuak eta dokumentazioa emateko epea 2021eko martxoaren 26an amaituko da
Zuzendaritza-proiektua balioestea	2021eko martxoaren 12a eta apirilaren 23a bitartean, aukeraketa-batzordeek hautagaien zuzendaritza-proiektua balioetsiko dute.
Bigarren faseko merezimenduen balorazioa, hautagai bat baino gehiago duten ikastetxeetan.	Merezimendu horiek balioesteko epea 2021eko apirilaren 16an amaituko da.
Hautagai bakoitzak eskuratutako puntuazioari buruzko ebazpena.	2021eko apirilaren 26an Erreklamazioak: 2021eko apirilaren 27a eta 30a bitartean, biak barne.
Behin betiko ebazpena	epea 2021eko maiatzaren 14an amaituko da.

Zuzendaritza kargurako nor	2021eko maiatzaren 14an
Hezkuntzako lurralde-ordezkarien ebazpenak	epea 2021eko maiatzaren 26an amaituko da.
Zuzendariak izendatzea	Pertsona horiek lau urtez egongo dira karguan, 2021eko uztailaren 1etik aurrera